DFOTO 2005

## PROYECTO TABACALERA

Título provisional: **La Actualidad Revisada**
Fechas: **8 de abril-15 de junio**



El vídeo es uno de los lenguajes más presentes en el arte contemporáneo del siglo XXI. Heredero de la tradición cinematográfica, ha devenido en un soporte imprescindible para muchos artistas contemporáneos. La finalidad de este proyecto es ubicar y hacer referencia en el espacio Tabacalera, futuro Centro Internacional de Cultura Contemporánea, de uno de sus principales fines "El lenguaje de la imagen".

Se reunirá en este proyecto una muestra de vídeos nacionales e internacionales seleccionados en algunos casos de los propios fondos de la Fundación COFF y en otros casos cedidos por otras instituciones y museos, así como por galerías nacionales e internacionales y los propios artistas.

El espacio Tabacalera, por su dimensión y la configuración de su arquitectura interior actual, resulta un espacio idóneo para este tipo de muestra, que proyectará sobre el centro un mensaje de contemporaneidad.

La muestra estará comisariada por Aline Pujo[1], que en este momento está elaborando el proyecto y la selección de artistas, y se llevará a cabo durante los meses de abril y junio de 2005, constituyendo una de las primeras

*1. Aline Pujó ha dirigido el área de mecenazgo artístico de la "Caisse des dépôts el consignations" durante seis años antes de preparar en los Estados Unidos una tésis doctoral sobre las colecciones de arte contemporáneo. Después se incorporó a l'ARC, en el museo de arte moderno de París como conservadora. Actualmente es la conservadora de la colección Neuflize Vie/ ABN AMRO*

ocasiones de abrir al público una visión del lenguaje visual que tan presente estará en lo que será el futuro Centro Internacional de Cultura Contemporánea de Donostia-San Sebastián, y donde la Fundación COFF (Centro Ordóñez-Falcón de Fotografía) instalará los fondos de su colección fotográfica y gestionará el primer Centro Internacional de Fotografía del estado español.

La muestra se ubicará aprovechando de forma polivalente las salas de la planta baja del edificio Tabacalera, utilizando los múltiples espacios disponibles de forma dispar dependiendo de las características de las propias obras seleccionadas.

Independientemente de la selección y definición de las obras que se mostrarán, la muestra tendrá un potente diseño de arquitectura de interiorismo, para lo que se requerirá un equipo de especialistas que traten el espacio útil de forma personalizada.

## EL PROYECTO

### La Actualidad Revisada

Las imágenes son instantes de historias visibles

Las imágenes del presente retransmitidas por los medios de comunicación que presentan la información en "tiempo real", nos hacen creer en la posibilidad de poder asistir en directo a nuestra propia Historia, a sus valores, a su verdad, a su sentido.

Aunque no finjamos ignorar completamente la manipulación que fabrica las noticias de actualidad ("news"), confiamos en la existencia de una información que pueda mostrar inmediatamente la realidad del momento.

La hipótesis de una coincidencia del presente con su propio hecho informativo habrá servido de patrón para acordar toda una serie de soluciones visuales ahora familiares (reality-shows), para imponer una tonalidad a esta época (industria de programas), para autorizar la publicidad directa (servicio "on line").

En este visionado instantáneo de un tiempo seguro con las imágenes de su propia actualidad, la mejor de las imágenes del vídeo-arte no deja de interponer una visión diferente.

Visión tergiversada, diferida, desfasada, solícita, que no secuestra al espectador en una temporalidad cerrada sobre sí misma. Estos vídeos pueden obligar a un punto de vista rearmado por ser combativo, o desarmado por ser paciente y pacífico: las miradas para las que el sentido y la calidad del presente no se agotan en el directo de las noticias.

La propuesta de la exposición es la de reunir un panorama de artistas internacionales que, a partir de experiencias, de emociones, sentimientos y apuestas políticas recalifiquen las imágenes de la actualidad. Las imágenes de estos vídeos se desmarcan de la visión anónima y neutra de la información objetiva para remarcar la fuerza de la mirada singular, para reinventar la información directa y vivida, para liberar el presente de la influencia demasiado evidente de contenidos ya demasiados trillados.

Estas visiones no ofrecen la unidad de punto de vista de la actualidad oficial, sino que multiplican las apuestas que motivan nuestra capacidad de actuar sobre el presente. Ahí está seguramente su riqueza.

Asimismo, se contempla la posibilidad de utilizar la propia fachada del edificio como reclamo visual, y apropiarse del espacio exterior, en función de la climatología, para proyecciones durante la noche.

## ARTISTAS REPRESENTADOS

Marina Abramovic
Alice Anderson
Maja Bajevic
Anri Sala
Gabriel Diaz
Willie Doherty
Emily Jacir
Cao Kaï
Selja Kameric
Judit Kurtag
Sigalit Landau
Ange Leccia
Valérie Mréjen
Antoni Muntadas
Shirin Neshat
Guillaume Paris
Annelies Strba

DFOTO 2005

## TABAKALERA PROIECTUA

Izenburua behin-behinekoa: **Aktualitate Aztertua**
Datak: **apirilak 8-ekainak 15**



Bideoa XXI. mendeko arte garaikidean gehien erabiltzen den mintzairetako bat da eta Tradizio zinematografikoaren oinordekoa denez, artista garaikide askoren ezinbesteko euskarri bilakatu da. Proiektu honen helburua da Tabakaleraren espazioan, hots, etorkizuneko Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroan, zentro honen xede nagusietako bat den "Irudi-mintzaira" ezartzea eta berari erreferentzia egitea.

Proiektu honetan nazio zein nazioarte mailako bideoak erakutsiko lirateke, hainbatetan COFF Fundaziotik bertatik hautatuak, eta beste hainbatetan, aldiz, beste erakunde zein museoek, nahiz nazio eta nazioarte mailako galeriek eta artistek utzitakoak.

Dituen dimentsio eta osaerari esker, Tabakalerak betetzen duen espazioa ezin hobea da erakusketa mota hauek egiteko. Gainera, erakusketa hauek garaikidetasun ukitu bat emango liekete zentroari.

Erakusketaren arduradun Aline Pujo[1] da, une hauetan proiektua lantzen eta artistak hautatzen ari dena. Erakusketa 2005eko apirila eta ekainean zabalduko da eta horixe izango da lehenengo aukeretako bat etorkizuneko

*1. Aline Pujók "Caisse des dépôts el consignations"-ko mezenasgo artistikoko gunea zuzendu du sei urtetan, Ameriketako Estatu Batuetan arte garaikideko bildumen inguruko doktorego-tesia prestatu aurretik. Ondoren, kontserbatzaile gisa l'ARC-en sartu zen, Pariseko arte modernoko museoan. Egun Neuflize Vie/ ABN AMRO bildumaren kontserbatzailea da.*

Donostiako Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroan nagusi izango den ikus-mintzaira publikoari eskaintzeko. Zentro horretan ezarriko ditu, hain zuzen ere, COFF (Centro Ordóñez-Falcón de Fotografía) Fundazioak bere argazki-bildumako fondoak eta han bertan kudeatuko du, halaber, estatu espainiarreko lehen Nazioarteko Argazkigintza Zentroa.

Erakusketa kokatzeko Tabakalera eraikineko behe solairuko aretoak erabiliko dira hainbat modutara, honela, erabilgarri dauden espazioak hautatutako lanen ezaugarrien arabera erabiliko dira.

Erakutsiko diren lanen hautaketa eta definizioa edozein dela ere, erakusketak arkitektura eta barne-apaindura diseinu indartsua izango ditu. Honetarako aditu talde batengana joko dugu, espazio erabilgarria modu pertsonalizatuan erabil dezaten.

## PROIEKTUA

### Aktualitate azterua

Irudiak ikusgai diren istorioetako uneen isla dira

Informazioa "denbora errealean" aurkezten duten komunikabideek ematen dituzten irudiek sinistarazten digute aukera dugula gure Istorioa bera nahiz beronen baloreak, egia eta zentzua zuzenean bizitzeko.

Itxurarik egin ez, eta eguneko berriek ("news" delakoek) fabrikatzen duten manipulazioa guztiz baztertzen ez dugula onartzen badugu ere, unean uneko errealitatea erakuts dezakeen informazioa izatearen itxaropena dugu.

Orainaldiak gertakari informatiboarekin bat egiten duela dioen hipotesia bisualak diren hainbat irtenbide emateko eredu gisa erabiltzen da, orain "reality shows" deritzanak. Honela, garai honi, hots, programa industriari, tonalitate bat eman eta zuzeneko publizitatea baimentzen da, hau da, "on line" zerbitzua.

Aktualitate-irudiekin seguru den garaiaren aldiuneko ikuskaldi hau nagusi dela, bideo-artearen irudi onenak, besterik ez bada, ikuspegi ezberdin bat ematen du.

Ikuspegi aldatua, desitxuratua, zaharkitua, arretatsua, ikuslea bere horretan lotzen den denborazkotasunean bahitzen ez duen ikuspegia. Bideo hauek ikuspegi armatu bat izatera bultza dezakete, bideo erasokorrak direlako, edota ikuspegi desarmatuak, bideo lasai eta baketsuak direlako: ikuspegi hauentzat orainaldiko zentzua eta kalitatea ez dira berrien zuzenekoan amaitzen.

Erakusketa honek proposatzen duena nazioarteko artista multzo bat biltzea da, esperientzien, emozioen, sentimenduen eta apustu politikoen bitartez gaurko irudiak berriz ere balora ditzaten. Bideo hauetako irudiak informazio objektiboaren irudi anonimo eta neutrotik aldentzen dira begirada bereziaren indarra azpimarratzeko, bizitutako zuzeneko informazioa birsortzeko, orainaldia gehiegi aipatu diren gaien eragin nabaritik askatzeko.

Ikuspegi hauek ez dute aktualitate ofizialaren ikuspuntuaren batasuna eskaintzen, aitzitik, orainaldian eragiteko dugun gaitasuna sustatzen duten apostuak biderkatzen dituzte. Horretan datza ziurrenik euren aberastasuna.

Eraikinaren fatxada bera erabiltzeko aukera ere badago, honela, erakargarri bisual bihurtu eta, klimaren arabera, kanpo espazioa erabil daiteke gaueko proiekzioak antolatzeko.

## AURKEZTU DIREN ARTISTAK

Marina Abramovic
Alice Anderson
Maja Bajevic
Anri Sala
Gabriel Diaz
Willie Doherty
Emily Jacir
Cao Kaï
Selja Kameric
Judit Kurtag
Sigalit Landau
Ange Leccia
Valérie Mréjen
Antoni Muntadas
Shirin Neshat
Guillaume Paris
Annelies Strba